



# A K T A

## Udalbatzarraren ezohiko bilkura

**EGUNA:** 2007ko uztailaren 17a.

**LEKUA:** Udaletxeko Udalbatzarraren aretoa.

**DEIALDIA:** Lehena    **HASIERA-ORDUA:** 19:10    **AMAIERA-ORDUA:** 19:45

**BERTARATUAK:**    **Alkatea**

Jon Redondo Lertxundi

**Zinegotziak**

Noemi Ostolaza Arkauz, Martxiel Genova Solaberrieta, Ainhoa Leunda San Sebastián, Karmele Velasco Garro, Joseba Goiburu Mancisidor, Leire Zinkunegi Lopez de Gereño, Oier Sarobe Escudero, Iñaki Iturain Azpiroz, Eugenio Cotado Iturain eta Jesus Jose Rodriguez Pousa.

**Behin behineko Idazkari-Kontuhartzailea**

Ibai Lertxundi Iribar

### Aztergai zerrenda

1. Onartzea, egoki bada, 2007ko ekainaren 16ko Udalbatzarraren eraketa bilkuraren akta.
2. Onartzea, egoki bada, Udalbatzarraren bilkuren ohikotasuna.
3. Onartzea, egoki bada, Alkatearen liberazioa eta dagozkion ordain sariak.



4. Onartzea, egoki bada, Alkatearen proposamena Batzorde Informatzaile Iraunkorrak eratzeari eta horien osaketari buruz.
5. Onartzea, egoki bada, Udalbatzarreko kideen erregimen ekonomikoa eta zinegotzien liberazioa.
6. Onartzea, egoki bada, Udalbatzarreko ordezkarien izendapena ordezkaturata egon behar duen organo kolegiatu guztietan.
7. Alkateak hartutako erabakien berri ematea hainbat izendapeni buruz: Alkateordeak eta Batzorde Informatzaile Iraunkorren Buruak.

### **Esan-eginak**

Alkateak, talde politiko guztiak horrela proposatuta eta urgentziazko arrazoiengatik, Toki Administrazioen Antolaketa, Funtzionamendua eta Erregimen Juridikoaren Erreglamenduaren 82.3 artikuluan oinarrituta, ondorengo gaia zerrendan sartzea erabaki du:

- Onartzea, egoki bada, emakumeen aurkako erasoei gaitzespenari buruzko mozioa.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du eta **AHO BATEZ BERRETSI DU** aipatu erabakia.

### **1.- ONARTZEA, EGOKI BADA, 2007KO EKAINAREN 16KO UDALBATZARRAREN ERAKETA BILKURAREN AKTA.**

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Udalbatzarra jakinaren ganean geratzen da eta, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU AHO BATEZ**, legezko kopuruaren gehiengo absolutuarekin (11 baiezko boto):

**ONARTZEA** 2007ko ekainaren 16ko Udalbatzarraren eraketa bilkuraren akta.



## **2.- ONARTZEA, EGOKI BADA, UDALBATZARRAREN BILKUREN OHIKOTASUNA.**

Akordio proposamena ondorengoa da: Udalbatzarraren ohiko bilkura hilean behin ospatuko da, hilaren azkeneko asteartean.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU AHO BATEZ**, legezko kopuruaren gehiengo absolutuarekin (11 baiezko boto):

**ONARTZEA** Udalbatzarraren bilkuren ohikotasuna: Udalbatzarraren ohiko bilkura hilean behin ospatuko da, hilaren azkeneko asteartean.

## **3.- ONARTZEA, EGOKI BADA, ALKATEAREN LIBERAZIOA ETA DAGOZKION ORDAIN SARIAK.**

Akordio proposamena ondorengoa da: Alkatea liberatua izango da, dedikazio osoarekin, UDALHITZ-eko 30. mailari dagokion ordain sariarekin.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Joseba Goiburuk (EAE-ANV) hartzen du hitza eta zera adierazten du: aurkako bozka emango dutela nahiz eta Alkatearen liberazioaren aurka ez egon, proposatzen diren ordain sariak gehiegizkoak iruditzen zaizkielako. EUDEL – ek ezarritako irizpideetaz gain beste batzuk ere aplikatu daitezkeela eta adibidez 27. maila nahikoa litzatekeela.

Oier Sarobek (EB-B-A) hartzen du hitza eta zera adierazten du: Aurkako bozka emango dutela Joseba Goiburuk azaldutako arrazoi berdinegatik.

Jesus Rodriguezek (PSE-EE-PSOE) hartzen du hitza eta EUDELek eginiko proposamenarekin bat datorrela adierazten du.

Azkenik, Alkateak hartzen du hitza eta adierazten du berak orain arteko irizpidea mantentzea besterik ez duela proposatzen eta gainera EUDELek Udallerri guztientzat eginiko proposamena jarraitzea zuzena deritzola.



Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, BOZKETA BIDEZ**, legezko kopuruaren gehiengo absolutuarekin [Aldeko 6 bozka: Redondo (EAJ-PNV), Ostolaza (EAJ-PNV), Genova (EAJ-PNV), Leunda (EAJ-PNV), Cotado (EA) eta Rodriguez (PSE-EE-PSOE). Aurkako bost bozka: Velasco (EAE-ANV), Goiburu (EAE-ANV), Zinkunegi (EAE-ANV), Sarobe (EB-B-A) eta Iturain (EB-B-A) ]:

**ONARTZEA** Alkatearen liberazioa eta dagokion ordainsaria: Alkatea liberatua izango da, dedikazio osoarekin, UDALHITZ-eko 30. mailari dagokion ordain sariarekin.

Eugenio Cotadok (EA) hartzen du hitza eta adierazten du nahiz eta puntu honetan aldeko bozka eman duen, zuzenagoa irudituko litzaiokeela ordain sari baxuagoak izango balira.

#### **4.- ONARTZEA, EGOKI BADA, ALKATEAREN PROPOSAMENA BATZORDE INFORMATZAILE IRAUNKORRAK ERATZEARI BURUZ ETA HORIEN OSAKETARI BURUZ.**

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Akordio proosamenak ondoko bederatzi batzorde informatzaile iraunkorren eratzea eta osaketa jasotzen du:

Gertutasuna, giza balioak eta herri antolaketaren batzordea.

Gaztedia, festak, eta kulturaren batzordea.

Hazienda, Pertsonala eta kalitatearen batzordea.

Turismoa eta ingurumen batzordea.

Kirolaren batzordea.

Euskara, Hezkuntza eta Komertzioaren batzordea.

Obra eta zerbitzuen batzordea.

Ekintza ekonomikoak eta enpleguaren batzordea.



Gizarte Politikaren Batzordea.

Batzorde informatzaile iraunkorren osaketa:

Gertutasuna, giza balioak eta herri antolaketaren batzordea.

Titularrak: Jon Redondo (EAJ-PNV), Joseba Goiburu (EAE-ANV), Iñaki Iturain (EB-B/A), Eugenio Cotado Iturain (EA), eta Jesus Rodriguez Pousa (PSE-EE/PSOE).

Ordezkoak: Noemi Ostolaza (EAJ-PNV), Karmele Velasco (EAE-ANV), Oier Sarobe (EB-B/A).

Gaztedia, festak, eta kulturaren batzordea.

Titularrak: Ainhoa Leunda (EAJ-PNV), Leire Zinkunegi (EAE-ANV), Oier Sarobe (EB-B/A), Eugenio Cotado Iturain (EA), eta Jesus Rodriguez Pousa (PSE-EE/PSOE).

Ordezkoak: Noemi Ostolaza (EAJ-PNV), Joseba Goiburu (EAE-ANV), Iñaki Iturain (EB-B/A).

Hazienda, Pertsonala eta kalitatearen batzordea.

Titularrak: Martxiel Genova (EAJ-PNV), Karmele Velasco (EAE-ANV), Iñaki Iturain (EB-B/A), Eugenio Cotado Iturain (EA), eta Jesus Rodriguez Pousa (PSE-EE/PSOE).

Ordezkoak: Jon Redondo (EAJ-PNV), Joseba Goiburu (EAE-ANV), Oier Sarobe (EB-B/A).

Turismoa eta ingurumen batzordea.

Titularrak: Ainhoa Leunda (EAJ-PNV), Leire Zinkunegi (EAE-ANV), Oier Sarobe (EB-B/A), Eugenio Cotado Iturain (EA), eta Jesus Rodriguez Pousa (PSE-EE/PSOE).

Ordezkoak: Jon Redondo (EAJ-PNV), Karmele Velasco (EAE-ANV), Iñaki Iturain (EB-B/A).

Kirolaren batzordea.



## **ORIOKO UDALA**

ORIO (GIPUZKOA)

Udalbatzarraren bilkurako akta • 2007/07/17

Titularrak: Jon Redondo (EAJ-PNV), Joseba Goiburu (EAE-ANV), Iñaki Iturain (EB-B/A), Eugenio Cotado Iturain (EA), eta Jesus Rodriguez Pousa (PSE-EE/PSOE).

Ordezkoak: Ainhoa Leunda (EAJ-PNV), Leire Zinkunegi (EAE-ANV), Oier Sarobe (EB-B/A).

Euskara, Hezkuntza eta Komertzioaren batzordea.

Titularrak: Noemi Ostolaza (EAJ-PNV), Karmele Velasco (EAE-ANV), Iñaki Iturain (EB-B/A), Eugenio Cotado Iturain (EA), eta Jesus Rodriguez Pousa (PSE-EE/PSOE).

Ordezkoak: Jon Redondo (EAJ-PNV), Joseba Goiburu (EAE-ANV), Oier Sarobe (EB-B/A).

Obra eta zerbitzuen batzordea.

Titularrak: Jon Redondo (EAJ-PNV), Joseba Goiburu (EAE-ANV), Oier Sarobe (EB-B/A), Eugenio Cotado Iturain (EA), eta Jesus Rodriguez Pousa (PSE-EE/PSOE).

Ordezkoak: Martxiel Genova (EAJ-PNV), Karmele Velasco (EAE-ANV), Iñaki Iturain (EB-B/A).

Ekintza ekonomikoak eta enpleguaren batzordea.

Titularrak: Martxiel Genova (EAJ-PNV), Karmele Velasco (EAE-ANV), Oier Sarobe (EB-B/A), Eugenio Cotado Iturain (EA), eta Jesus Rodriguez Pousa (PSE-EE/PSOE).

Ordezkoak: Jon Redondo (EAJ-PNV), Joseba Goiburu (EAE-ANV), Iñaki Iturain (EB-B/A).

Gizarte Politikako Batzordea.

Titularrak: Noemi Ostolaza (EAJ-PNV), Leire Zinkunegi (EAE-ANV), Iñaki Iturain (EB-B/A), Eugenio Cotado Iturain (EA), eta Jesus Rodriguez Pousa (PSE-EE/PSOE).



Ordezkoak: Jon Redondo (EAJ-PNV), Karmele Velasco (EAE-ANV), Oier Sarobe (EB-B/A).

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU AHO BATEZ**, legezko kopuruaren gehiengo absolutuarekin (11 baiezko boto):

**ONARTZEA** alkatearen proposamena, goian aipatutako bederatzi batzorde informatzaile iraunkorrak eratzeko eta beraien osaketa.

## **5.- ONARTZEA, EGOKI BADA, UDALBATZARREKO KIDEEEN ERREGIMEN EKONOMIKOA ETA ZINEGOTZIEN LIBERAZIOA.**

Akordio proposamena ondorengoa da, Udalbatzarraren kideen erregimen ekonomikoari dagokionean:

Udalak egoki funtziona dezan eta udalbatzakideek beren betebeharrak modu egokian bete ahal izan ditzaten, honako erregimen ekonomiko hau proposatzen da.

Alderdi politikoak. Ondoko diru kopuruak izendatuko zaizkie alderdi politikoei:

Talde politiko bakoitzari 150 euro hilean.

Zinegotzi bakoitzeko 100 euro hilean.

Batzorde informatzaileetako buruak: 300 euro/hileko.

Beste zinegotziak: 200 euro/hileko.

Udal gestioak egiterakoan sortutako gastuak horretarako dagoen eredia erabiliz justifikatuko dira.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU AHO BATEZ**, legezko kopuruaren gehiengo absolutuarekin (11 baiezko boto):

**ONARTZEA** aipatutako Udalbatzarraren kideen erregimen ekonomikoa.



Akordio proposamena ondorengoa da, zinegotzien liberazioari dagokionean:

Zinegotzien liberazio hauek izendatuak izan diren Batzorde Informatzaileko Buruari dagozkion funtzioak betetzera lotuak izango dira:

- Liberazio oso bat: Noemi Ostolaza Arkauz (UDALHITZeko 22.maila)
- Hiru zinegotzi dedikazio hereneko liberazioarekin (UDALHITZeko 22.maila)
  - 1.- Leire Zinkunegi Lopez de Gereño
  - 2.- Iñaki Iturain Azpiroz
  - 3.- Jesus Rodriguez Pousa

Karmele Velascok (EAE-ANV) hartzen du hitza eta zera adierazten du: Beste liberazio oso bat onartzea gehiegizkoa iruditzen zaiola, proportzionaltasuna hautsi egingo lukeelako. Bestade, PSOEko ordezkariari beste liberazio bat onartzea, bigarren liberazio bat suposatuko luke, ikusita alderdiko liberazioa ere baduela. Beraz, zinegotzien liberazioen inguruan eginiko proposamena guztiz birplanteatu beharko litzatekeela.

Oier Sarobek (EB-B-A) hartzen du hitza eta adierazten du eginiko proposamena kontuan hartuta guztira hiru liberazio oso izango liratekeela eta hori gehiegizkoa iruditzen zaiola.

Alkateak hartzen du hitza eta Jesus Rodriguezi galdetzen dio ea alderdiko liberazioren bat ba duen. Honek ezetz erantzuten dio eta ez duela ulertzen intentzio txarreko informazio horiek nork ateratzen dituen eta zein intentziorekin.

Eugenio Cotadok (EA) hartzen du hitza eta adierazten du zinegotzien liberazioak, zinegotzi bakoitzak duen lan kargaren arabera izan beharko lukeela eta Alkateaz gain beste liberazio oso bat onartzea gehiegizkoa dela eta ez dagoela justifikatua.

Leire Zinkunegik (EAE – ANV) hartzen du hitza eta adierazten du Udaletxera saririk gabe lan egitera etorri behar dela.





Joseba Goiburuk (EAE-ANV) hartzen du hitza eta adierazten du bere ustez puntu honetako bi gaiak batera bozkatu beharko liratekeela.

Azkenik, Alkateak hartzen du hitza eta adierazten du berak alderdi ezberdinetatik jasotako proposamena izan dela liberazio bat hiru herenetan zatitzea hiru talde politikori emanez, kontuan izanda Eugenio Cotadok (EA) uko egin diola inolako liberaziorik izateari. Eta bigarren liberazio osoari dagokionean bere ustez justifikatua dagoela Noemi Ostolazak (EAJ-PNV) beregain hartzen dituen funtzioetatik eratorzen den lan kargatik.

Udalbatzarra jakinaren ganean geratzen da eta, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, BOZKETA BIDEZ**, [Aldeko 5 bozka: Redondo (EAJ-PNV), Ostolaza (EAJ-PNV), Genova (EAJ-PNV), Leunda (EAJ-PNV) eta Rodriguez (PSE-EE). Aurkako sei bozka: Velasco (EAE-ANV), Goiburu (EAE-ANV), Zinkunegi (EAE-ANV), Sarobe (EB-B-A), Iturain (EB-B-A) eta Cotado (EA) ]:

**EZ ONARTZEA** aipatu zinegotzien liberazioak.

## **6.- ONARTZEA, EGOKI BADA, UDALBATZARREKO ORDEZKARIEN IZENDAPENA ORDEZKATUTA EGON BEHAR DUEN ORGANO KOLEGIATU GUZTIETAN.**

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Udalbatzarra jakinaren ganean geratzen da eta, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, BOZKETA BIDEZ**, [Aldeko 5 bozka: Redondo (EAJ-PNV), Ostolaza (EAJ-PNV), Genova (EAJ-PNV), Leunda (EAJ-PNV) eta Rodriguez (PSE-EE). Aurkako bost bozka: Velasco (EAE-ANV), Goiburu (EAE-ANV), Zinkunegi (EAE-ANV), Sarobe (EB-B-A), Iturain (EB-B-A). Eta abstentzio bat: Cotado (EA) ] eta Alkatea kalitatezko bozkaz baliatuz:

1.- Jon Redondo Lertxundi Alkatea izendatzea Orioko Udala ordezkatuta egon behar duen organu kolegiatu guztietan eta Noemi Ostolaza Arkauz Alkateordea **IZENDATZEA kide bezala beharrezko den organuetan, eta ordezeko bezala besteetan.**



## **ORIOKO UDALA**

ORIO (GIPUZKOA)

Udalbatzarraren bilkurako akta • 2007/07/17

Urola Kostako Mendi Nekazaritza elkarte (URKOMEn)

Gipuzkoako Ur Kontsortzioa

Euskal Fondoaren Batzar Orokorra

Eta Udalak ordezkaritza behar duen gainerako organu kolegiatuetan.

2.- Urola Kostako Udal Elkarteko batzorde exekutiboan Udal Elkartearen Estatutuei jarraituz, Orioko Udala Jon Redondo Lertxundik (EAJ-PNV) eta Joseba Goiburu Mancisidorrek (EAE-ANV) ordezkaturiko dute.

### **7.- ALKATEAK HARTUTAKO ERABAKIEN BERRI EMATEA HAINBAT IZENDAPENI BURUZ: ALKATEORDEAK ETA BATZORDE INFORMATZAILE IRAUNKORREN BURUAK.**

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Behin behineko Idazkariak hartzen du hitza eta alkateak egindako izendapenen berri ematen du:

#### Alkateordeak

Lehen alkateordea: Noemi Ostolaza Arkauz (EAJ-PNV).

Bigarren alkateordea: Eugenio Cotado Iturain (EA).

Hirugarren alkateordea: Oier Sarobe Escudero (EB-B-A).

#### Batzorde informatzaileetako buruak

Gaztedia, festak, eta kulturaren batzordea: Ainhoa Leunda San Sebastián.

Hazienda, Pertsonala eta kalitatearen batzordea: Martxiel Genova Solabarrieta

Turismoa eta ingurumen batzordea: Leire Zinkunegi Lopez de Gereño

Kirolaren batzordea: Eugenio Cotado Iturain.

Euskara, Hezkuntza eta Komertzioaren batzordea: Iñaki Iturain Azpiroz.



Obra eta zerbitzuen batzordea: Jesus Rodriguez Pousa.

Ekintza ekonomikoak eta enpleguaren batzordea: Karmele Velasco Garro.

Gizarte Politikaren Batzordea: Noemi Ostolaza Arkauz.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da.

## **8.- ONARTZEA, EGOKI BADA, EMAKUMEEN AURKAKO ERASOEI GAITZESPENARI BURUZKO MOZIOA.**

Behin behineko idazkariak talde politiko guztiak aurkeztutako mozioa irakurtzen du:

### *EMAKUMEEN AURKAKO ERASOEI GAITZESPENA*

Joan den asteburuan Orioko emakume baten aurkako erasoak gertatu dela-eta, Orioko Udalaren Osoko Bilkurak ondorengoa adierazi nahi du:

- Emakumeen aurka egiten den indarkeria, haien duintasun, osotasun fisiko eta moralaren aurkako erasoak da. Giza eskubideen urraketa larria eta onartezina ere bada. Gure ustez, indarkeria mota honen oinarrian emakumeek bizi duten desberdintasun eta menpekotasun egoera dago. Zoritxarrez, ez dago munduan herrialderik edo giza talderik gaitz honek jotzen ez duenik.
- Genero indarkeria jasaten duten biktimak ia babesik gabe geratzen dira erasoaren ondorioz. Egoera hori ekiditeko, aginte publikoek egoki koordinaturiko erantzunak sortu behar ditugu biktimari eta haren familiari behar duten laguntza eta babesa eskaintzeko.
- Lerro hauetatik erasoak jasaten dituzten biktima guztiak Orioko Udaletik laguntza osoa eskaini nahi diegu, horretarako biktimei Udalera etor daitezela eskaintzen zaie, elkarrekin egoera larri hauei konponbidea eman diezaiogun.
- Era berean, biktimak eta bere familiarekoak horrela eskatuta, Udala herri akusazio moduan aurkezteko prest agertzen da.
- Gizabanako guztiak berdinak garen gizarte honetan, ezin dugu onartu, lagunurkoa menperatu eta zapaltzea helburua duen indarkeria mota hau. Guztiok parte hartu behar dugu modu aktiboan arazo honen konponbidean.
- Orioko Udalak erabat gaitzesten ditu emakumeek jasaten dituzten tratu txarrak, eta herritarrei adierazi nahi die ostegun honetan eguerdiko 12etan bost minutuko kontzentrazioa egingo dela herriko plazan.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.



## **ORIOKO UDALA**

ORIO (GIPUZKOA)

Udalbatzarraren bilkurako akta • 2007/07/17

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU AHO BATEZ**, legezko kopuruaren gehiengo absolutuarekin (11 baiezko boto):

- **ONARTZEA** emakumeen aurkako erasoei gaitzespenari buruzko mozioa.

Horrenbestez, bilkurari amaiera ematen zaio eta, erabakitakoa jasota gera dadin, nik, Behin Behineko Idazkaria naizenez, akta hau egiten dut Alkatearen ontzat emanarekin.

**ALKATEA**

**BEHIN BEHINEKO IDAZKARIA,**